

# BUHAMEAK

## taldea

### PARTAIDEAK

Ander Lizarralde (bertsolaria)

Unai Muñoa (bertsolaria)

Aitor Atxega (musikaria)

Imanol Kamio (musikaria)

Asier Sota (zuzendaria)

### AURREKARIAK

#### EZ GARA PALESTINAZ ARI!

Buhameak Ander Lizarralde, Unai Muñoak (bertsolariak), Aitor Atxegak eta Imanol Kamiok (musikariak) osatzen duten taldearen izena da. Duela sei urte, "Ez gara Palestinaz ari" izeneko emanaldia estreinatu zuten, Andoaingo Bastero Kulturetxean, Lanku kultur zerbitzuen eskutik. Koldo Mitxelena kultur etxean egindako aurkezpenean adierazi zuten ibilbide terapeutiko baten ondorioak agertzen zirela emanaldi harretan, eta bi bertsolariak zenbait intimitate partekatuko zituztela publikoaren aurrean.

Izenburuak adierazten zuen emanaldiaren zentzua, modu inplizitu batean. *"Euskaldunak abilak gara gai politikoetan eta euskal gatazkaren inguruan, bai eta politika internazionalen ere, aditu bihurtzen baikara tabernako elkarrizketatan. Baina ezer gutxi hitz egiten dugu gutaz, guri gertatzen zaizkigun gorabeheren inguruan... gure barne mundu horretaz, alegia"*, adierazi zuten. Horregatik "Ez gara Palestinaz ari" izenburua, oraingoan ez zuten gai estratosferikoetan aritzeko asmorik, euren bizitza intimoaz, baizik. Besteak beste, Haur zireneko abandonu bizipenak, gurasoekiko erlazioa eta jasotako herentzia emozionala, Egoa puztu eta besteen aurrean defendatzeko beharra, gizonen arteko harremanak... bezalako gaiak aztertu zituzten.

Intimitateak partekatu nahi izateak, ez dio jarrera nartzisista bati erantzuten, ez eta entzulearen morboa asetzeko nahiari ere. Lizarralde eta Muñoaren helburu nagusia ispilu lanak egitea zen. Haien istorioa kontatzearen truke, nolabaiteko strip-tease emozional bat egitearen truke, publikoak bere barruetan begiratu zezan gonbidapena zen. *"Benetan lotzen gaituzten kateak gure baitan daude, eta sarri, ikusezinak diren barroteen atzen bizi gara beldurraren preso, tsunami emozionalen mende. Gure kartzelari hitzak jartzea, forma eta kolorea ematea, garrantzitsua da, eta noski, bertan bizi garela konturatzea.*

Ikuspegi artistiko batetik begiratuta, horretan ere berezia zen. Lizarralde eta Muñoa bertso munduan dira ezagunak eta Atxega eta Kamio berriz musika munduan. Bestalde, bertso sortak musikatzeaz gain, antzerkia zein poesia ere egiten zuten, diziplina ezberdinetako nahasketa antzeko bat osatuz, oreka baten barruan, hausnarketa eta umore dosi handiekin.

Herriz herri egindako emanaldien balorazio oso positiboa egin zuten lau partaideek. Ikus-entzuleek egin zieten harrera ezin hobetzat irizten zuten eta ia berrogeita hamar emanaldi egitera iritsi ziren Euskal Herri guztian zehar, baina batik bat, Gipuzkoan. Hasiera batean ez zuten uste horrenbesteko arrakasta izan behar zutenik, eta hain gauza berria eta berezia izaki zalantzak ere bazituzten nola hartua izango zen. Dena dela, oso gustura geratu ziren lortutako emaitzarekin eta gerora beste ekimen batzuetan parte hartzeko baliagarria izan zitzaien.

### **OLATU TALKA, DONOSTIAKO POLLOE KANPOSANTUAN**

Emanaldi honen harira, beste zenbait proiektutan parte hartzeko aukera ere izan zuten, Olatu Talka kultur ekimenean, adibidez. Donostiako auzo eta kale ezberdinetan, Olatu talkak zenbait kultur jarduera ezberdin antolatu zituen, eta tartean, Polloeko hilerrian aritu ziren Buhameak taldeko partaideak. Bertan lur emanda dauden hainbat autoreren larrutik aritu ziren bertsotan, okasiorako propio prestatutako bertsoak abestuz, pianoarekin eta gitarrarekin lagunduta. Sarriegi, Clara Campoamor, Bilintx... Dagoeneko gure artean ez dauden erreferente hauen ahotik abestu zuten, gaur egun Donostiari buruz izango luketen iritzia irudikatuz, haien ibilbide historikoan oinarrituta, betiere. Hainbat bertso doinu klasiko aukeratu eta sorta ezberdinak prestatu eta abestu zituzten.

Horrela suertatu zitzaien Euskadi Irratiarekin kolaboratzeko aukera. Igande goizetan emititzen duten Amarauna saioan aritu ziren bertsotan. Ideia berdinari jarraituz, dagoeneko hilik dauden autore ezberdinen ahotik abesten zuten, baina kasu honetan bi autore ezberdinen arteko elkarrizketa bat irudikatzen zuten. Hala nola, Oteiza eta Txillida... izan ziren horietako batzuk. Kasu guztietan formula bera erabiltzen zuten, bertso doinuak zein autore horien kantu doinuak aukeratu, letra berria bat sortu eta egungo gizartean kokatzen zituzten, haien begiradarekin irizteko.

Horrez gain, kantu afariak, bertso afariak eta bertso kantu afariak ere eskaintzen dituzte, antolatzaileen beharren arabera. Eskaintza ezberdinen informazio gehiago jaso nahi izanez gero, web orri bat ere badute guztion eskuragarri: **[buhameak.eus](http://buhameak.eus)**.

## **IKUSKIZUN BERRIA**

### **ERIK ETA WIN**

Aurrekariak azaldu ondoren, aurkeztu berri duten emanaldi baten berri eman nahi du dokumentu honek. Bigarren emanaldi honek ere “Ez gara Palestinaz ari” emanaldia osatzen zuten antzeko osagai batzuk baditu, nahiz eta ez den bigarren zati bat edo haren jarraipena. Aipaturiko antzekotasunak honako hauek dira:

Muñoa eta Lizarralde bertsolarien esperientzian oinarrituta, zenbait intimitate partekatzen dituzte, betiere publikoarengan zenbait galdera ikur sortzeko asmoarekin. Aurretik azaltzen genuen bezala, norbere barruetan begiratzeko ispilu lana egin nahi dute, eta ez

epaituak zein miretsiak izan. *“Askotan, besteen kontraesanak eta erruak seinalatzea gustatzen zaigu, baina gutxitan egiten ditugu ekarpenak autokritika abiapuntutzat hartuta edo norbere buruaz hitz eginda, marko teoriko batetik haratago”*. Hatzarekin erruak banatu orde, eredutik eta aitortzetatik egin nahi izan dute bidea Muñoak eta Lizarralde, bi emanaldietan.

Kantua, poesia, bertsoa, antzerkia eta musika dira emanaldi honetan ere nahasten direnak. Zenbait unetan sakon eta zatirik gehienetan umoretsu orekatzen dute emanaldia. Antzerkiaren bidez, bi bertsolarien izaeraren karrikatura bat egin eta euren buruari barre egiteko gai direla erakusten dute, ondoren, bestelako sakontasun maila batean, bertsoz, poesiaz edo kantuz hausnartzeko.

Bi emanaldien kasuan, helburu berdina aitortzen dute, batetik, askatasun pertsonalaren bidean garrantzitsutzat baloratzen dituzten gakoak eta mezuak zabaldu nahi dituzte, eta bestetik, gizonen arteko harreman ereduaren gaiari heldu eta haien kezka eta hausnarketak partekatu nahi dituzte, bide eta eredu berrien bila lagungarriak izateko asmoz.

Hala ere, esan bezala, nahiz eta hainbat ezaugarri errepikatzen diren, bigarren emanaldi honek ez du lotura zuzenik lehenengoarekin. Esperientziaren kontakizuna da bi kasuetan, eta bizitzaren gaineko hausnarketa bat ere bai, baino bigarren emanaldi honek hainbat berrikuntza dakartza. Emanaldi honek aldaketa dakar artistikoki eta bi protagonisten bilakaera pertsonalean. Bertsolari bakoitzak bere errealitate propioa aztertu eta azaldu orde, oraingo honetan elkarren arteko harremana haritzat hartu eta harreman intimoetan arakaten baitute, agerikoa denaren atzean ezkututzen dugunaren inguruan, hain zuzen ere.

### **Zer aztertzen dute zehazki emanaldi honetan?**

Gizakiok animalia sozialak garela jakin badakigu, baita elkar behar dugula munduaren eboluzioari aurre egiteko ere. Lehen emanaldiaren gako nagusia nor izatea zen, ezin baikara besteekin modu sano batean erlazionatu, baldin eta lehenengo ez bagara nor. Bigarren emanaldi honetan, norbera bestearekin erlazionatzen garenean gertatzen diren botere harremanak, elkarrekiko lehiak, batak bestearekiko ditugun interesak, besteari begiratzeko ditugun moduak, inbidiak, amorrak, maitasun keinuak, zaintzak eta abar aztertzen dira.

Ander Lizarralde oiartzuarrak eta Unai Muñoa lasartearrak ezagutu zirenetik orain arte egin duten eboluzioa kontatzen dute, baina normalean ezkutuan geratzen direnak argitara eramanez. Horrez gain, gizon bezala aztertzen dute euren burua, batetik, euren artean erlazionatzeko modua aztertzean, eta bestetik, bakoitzak emakumeekin erlazionatzeko eduki duen modua erakustekoan. Modu esplizitu batean eredu berririk proposatzen ez bada ere, orain sentitu litekeen nora-eza nabarmentzen dute eta eredu berrien beharra azalarazi, aukera berriak xuxurlatuz. Aipatzekoa da, hausnarketak eta sakontasunak bere lekua baldin badu ere, umorea dela osagai nagusia, eta denbora tarte eder bat pasatzeko parada izango dute bertaratzen diren ikus-entzule guztiek.

### **Zeintzuk dira maila artistikoan ekarpen berriak?**

Emanaldi honetan, protagonisten estiloari jarraituz, bertso doinuak erabiltzen dituzte batik bat, nahiz eta bestelako proposamenak ere aurkitu genitzakeen, buleria bat edo son kubatarra, adibidez. Abesteko modua ere asko zaintzen dute. Sorta guztiak musikaz lagunduak izateaz gain, bi ahotsetara ere abesten dute zenbait momentutan, eta sorta bakoitzak bere koreografia propioa du. Oraingo honetan doinu berriak plazaratuko dituzte. Esan beharra dago

Imanol Kamiok eta Aitor Atxegak lan bikaina egin dutela musukari dagokionez. Zentzu honetan ageriko aurrera pausoak eman dituzte, eta berehala nabarituko dute hori ikus-entzuleek.

Neurri berean, azpimarratzekoa da oraingo honetan zuzendari artistiko batekin egin dutela lan. Aurreko prozesuak intuizioz egindakoak izan dira, eta kanpoko ahotsen laguntza jaso izan badute ere, lehen aldia da oraingo honetan profesional batengana jo dutena. **Asier Sotak** zuzendu du obra. Hasieratik prozesuaren parte izan da eta, zuzentzeaz gain, sorkuntza prozesuan izan duen eragina ere aipatzekoa da. Aurreko emanaldian (“Ez gara Palestinaz ari!”), eszena ezberdinak proposatzen zituzten, haien arteko lotura zuzenik gabe. Oraingo honetan berriz (“Erik eta Win”, istorio baten kontakizuna da, hasi eta buka. Batetik bestera lotua eta modu koherente batean osatzen da.

Inolako zalantzarik gabe, lan profesionalagoa da alde guztietatik begiratuta ere. Buhomeak taldeko partaideek aurreko emanaldiaren harrera bera izatea nahi lukete, orduan ere oso konforme geratu baitziren.

**ESTREINALDIA:** OTSAILAREN 7an (ostirala), Donostian: LUGARITZ kultur etxean, arratsaldeko 20:00etan

Hurrengo emanaldiak:

Asteasu            Otsailak 14

Zaldibia            Martxoak 27

Oiartzun            Apirilak 4

### **CURRICULUMA (“Ez gara Palestinaz ari!”)**

2013

Otsailak 2: Andoaingo Bastero Kulturgunean

Otsailak 3: Andoaingo Bastero Kulturgunean

Martxoak 1: Oiartzungo udaletxean

Martxoak 14: Lasarte-Oriako Kultur Etxean

Martxoak 16: Iruritako Kultur Etxean

Martxoak 22: Donostiako San Telmo Museoan

Apirilak 13: Amezketako Kultur Etxean

Apirilak 19: Larraulgo Elizan

Maiatzak 10: Alzako Kultur Etxean

Maiatzak 24: Oñatiko Zineman

Maiatzak 31: Pasai Donibaneko zineman

Ekainak 7: Astigarragako Kultur Etxean

Ekainak 22: Alkizako Urmara Museoa

Irailak 20: Elgoibargo zineman

Irailak 22: Urnietan, Sarobe Kultur Etxean

Urriak 11: Azpeitiako Soreasu zineman

Urriak 18: Hernaniko Biteri Kultur Etxean

Urriak 19: Igeldoko eskolan

Urriak 25: Berastegiko udaletxean

Azaroak 5: Iruñeako Bertso aroan

Azaroak 9: Usurbilgo Kultur Etxean

Azaroak 22: Gernikan, Astran

Azaroak 29: Itsasondoko eskolan

Abenduak 1: Berrizko Kultur Etxean

Abenduak 14: Tolosako bonberenean

Abenduak 20: Debako Kultur Etxean

Abenduak 28: Berako Kultur Etxean

Abenduak 29: Asteasuko udaletxean

2014

Urtarrilak 18: Markina-Xemeingo Uhago Kultur Etxean

Martxoak 19: Larrabetzuko gaztetxean

Apirilak 2: Bilboko Kafe Antzokian

Maiatzak 17: Zarauzko gaztetxean, "gizon taldea"k antolatuta.

Maiatzak 30: Andoaingo Goiburu auzoan

Irailak 13: Ordizia D'elikatuz-en

Irailak 26: Bilboko Erreproduzio museoan

Azaroak 22: Adunako Kultur Astean

Abenduak 7: Iturenen

2015

Urriak 23: Hernaniko Biteri Kultur Etxean, gizon taldeak antolatuta

Azaroak 19: Getxoko Azerribar Kultur gunean

Azaroak 20: Arantzazuko Kultur Etxean

Azaroak 25: Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxean

Azaroak 26: Zarauzko Modelo Zineman

Abenduak 3: Otxandio, Maiondo kiroldegian

2016n

Otsailak 14: Lasarteko Abend aretoan

Apirilak 15: Arrasateko Kultur Etxean

Ekainak: Iruñeko IKA euskaltegian

2017:

Abenduak 1: Zaldibiko Kultur Etxean